



☩ : JAUNGOIKUA ETA LAGI-ZARA :  
: EUZKELTZALE-BAZKUNA. BILBAO :

# Euzkadi'ko Ipuin, Asele ta Askitzak

ALTUNA'TAR JOSEBA'K  
EUZKERALDU TA.

EUZKO-DEYA'ren  
ARGITALGINTZEA



Ausin 'dar Joseba 'ren irakolea.  
Abando, Iturritza-11'gn

75



H-39682

R-48502

ATV  
21595

# Euzkadi'ko

## Ipuin, Asele ta Askitzak

\* \* \* \*

ALTUNA'TAR JOSEBA'K

EUZKERALDU TA.



EUZKO-DEYA'ren

ARGITALGINIZEA



Ausin 'dar Joseba' ren irarkolea.

Abando, Iturritza-11'gn.

# U A Ñ A K

Erotazuri'ko Uretxindōra, Ilen Gudakea ta Martin Abadiaren Txakuñak *ixendun idazkunak Ituñalde eta Suit' añ Jon'en idazti (liburu) batetik euzkeraldu dodaz. Idazti onen ixena da "Cuentos, leyendas y descripciones euskaras". Orain bost urte-edo Iruña'n argitraldu zan erderaz.*


Aralañ deritxonaren *mamiña artu ta euzkeraldu dot "El Santuario de San Miguel de Excelsis" ixendun idaztiñik. Liburu au orain iru urte ageñtu zan bigarenez Iruña'n, nabartañ batek eginda.*



*Ipuin, asele (leyenda) ta askitz (tradiziño) onek euzkeraldu ta argitaltzen dira emen, euzkeldunai atsegingo (gustauko) yakezalakuan.*

A. ' tañ J.

*Bilbao, 1917'gko. Otsala'n.*





## EROTAZURI'KO URETIXINDORA

---

¡Katariñe gaxua, *Erotazuri'*ko atso mañegafi-guñgafiya!

Beria baño buru-zapi zurijagorik, ez gogo zinduago ta bijotz oberik ezeguan Nabaña osuan.

¡Katariñe gaxua! Eguzkija mendi-ostez sañtuta, basotik etxera elduten zanian, ilobatxubak mañero añtu ta zainduten ebazan, euroi abestuten (kante-tan) eutsezalarik Bertizarana'n entzun eta ikasiña eukazan abesti samuñ-gozuak.

Eñiko txadon-jualiak (eleiz-kanpayak) *Angelus* samuñkiro joten ebela, Katariñe'k bere etxequakin egiten eban añatsaldeko otoyá. Gero, su-onduan jañi ta goruba eskubetan añtuta, gogoz ekiten eutson añdatzari, larogei urte ta geyago euki-añen. Ori iku-

siña, etxeko umiak bere inguruban jesañten ziran, amamaren ipuñak pozik eta adi entzuteko.

Bein auxe entzun neutson, *Erotazuri*'n bertan, Katariñe'ri.



—Ni txikija nintzanian, eřota-ostian dagon areitz-  
-onduan abi polit bat eguan, sasi ta baso-loraz es-  
-talduta.

Abi onetan egoten zan uda-gau ixañtsu ta berue-  
tan abesti (kanta) gozuak egiten ebazan ufetxindõra.

Bein, Kepatxu'k, *Gazteluzar*'eko semiak, lakijua  
ipiñi, beragaz txorija añtu ta, pozik, etxera eruan  
eban. Kayola edeř baten jañi eban ufetxindõra ta  
jatekorik asko emon eutson.

Baña txori gaxuak ezaban gura jan, ez abestu.  
Itxuraz, bere gogora etořkijon baso ta iturñi, mendi  
ta zugatz eta abi mañiaren gomutea, ta itun-itun  
(triste-triste) eguan. Bere iñarkun bakaña zan batetik  
bestera ibili kayola-bañuban, espetxeko (kartzeleko)  
loruai pikua ezafi, eurok ausi ta bertatik alde  
-egiteko.

Baña egunak juan egunak etoři, asi zan geure ur-  
etxindõra baretuten, geldituten. Begijak lengo poza  
ta argija erakusteñ ebezan. Edonok esango eban  
aiztuta eukala bere zoritxaña.

Kepatxu, kayolaren onduan jañi ta luzaro egöten zan ereskiyak (tonadiak) txistu-egiten, ufetxindofak eurok ikasi egixantzat. Eta ibili ta ibili, onek ikasi be.

Au zala-ta, Kepatxu poz-pozik eguan. Baña bein bere amak esan eutson azke (libre) ta nasai baso-ziañ ibilden ekanduta eguan txori arentzako zoritxañ andija zala kayolan estu-estu egotia.

Gomutaratu eutson ufetxindofaren zorijona udagabetan, buruba nasai, abestuten (kantetan) ebanian. Onen antzedun beste gauzarik asko be esan eutson amak.

Eurok entzunda, Kepatxu'k (okeña baña, bijotz ederduna zana) erantzun eutson:

—Orain igarten dot txarto egin nebala txori gixaxo ori añapatziatz, ta lengo azkatasuna emon gura-dautsot, len lez alai ta pozik bixi-daten.

Eta au esanda, kayola añtu ta berakin ariñeketan juan zan. Eñota-osteko areitz-ondora elduta, kayola luñian itxi eban. Atia zabaldata, atzera egin eban, txorijaren poza ta zorijona ondo adiñuteko egaz-egingo ebanian.

Ufetxindofa kayolatik txijoka urten, areitz-adaf baten jañi, bere abija ikusi ta... ¿bai-dakixube zer egin eban?

—Bertan sañtu ta kukuñtu—esan eban mutiko batek.

— Mosurik abijari emon — esan eban beste batek.

— Antziñan lez, txijoka asi, pozaren pozaz— esan eban irugañenak.

— Ez olakorik — erantzun eutsen amamak —. Txorijak ezeuzan gomutetan bere gurasuen abestijak, ez bere etxia, ez txikitatiko azkatasuna. Aulan, ba, adafik-adaf ibili, lufera jatsi, Kepatxu bere jaubiagandik ikasitako soñu bat egin eta... bañiro sañtuzan kayolan.

*Erotazuri*'ko umiak ikaratuta lotu ziran, entzuten ebena ziñetsi-eziñik. Ori igarita, Katariñe zinñuak, bekokija esku tximuñtsu-ganian ezarita, esan eutsen:

— Iñoiz zuben guraso edo abeñijagandik nai-ta-ez alde-eragingo ba-dautzube, ta gero eurekana etofi al-ixango ba-dozube, jez egin, ene umiak, *Erotazuri*'ko uñetxindofak egin ebana!







## IĪEN GUDAKEA

---

Garazi ta Ořeaga (Roncesvalles)-bitar̄teko mendi jagi ta ar̄u sakonetatik ibil̄ita gero, Aztobizkař-baso itxaltsuko basetxe zar̄ batera eldu nintzan Dagonila (Abustu)'ko 14'gařeneko iluntzijan, agura batek lagun-eginda.

Nik gura neban Ořeaga'n gaba igazi edo pasau, baņa ezin. Bertara juateko bide latzak egozan, eta ařezkero belu zan. Basetxion lotu biař, ba.

Abegi ona egin eusten, etxeko aizkidia ba'nintz lez, ta mai-onduan jařita, bertakuakin apaldu neuzan esne egosija, artua ta gastaņak.

Larogei urtedun ařitak maya onetsi edo bedein-katu ta otoi-eginda gero, ekanduba oi-dan lez, izketan asi giņian gogoz baseřitafai yagokoezan arazue-

tzaz: gari-biltziatzaz, gastañen gexuatzaz ta basuan ebiltzan artaldiatzaz. Azkenez, aiatu geban bijaramonian ikusi gura neban lekaretxe edo monasterijua.

—¿Zeinbat asti (denbora) bialko dot biala Orea-ga'ra juateko?—itandu neban.

—Bide laburetatik juanda, ordu bi ta erdi.

—¿Eta Aztobizka-tontor-ganera igoteko?

—Anka ariñak ba-daukazuz, ez asko asko—esan eustan etxeko seme nagusijak. — Baña etziraite itxonezkero, ederito juan zatekez, bertora juango diran ikazkiñen mando-ganian jesaia.

—Ezin itxaron—erantzun neutson—. Mendi oretako tontor gorenguan biala gabian egon biala-naz.

—¿Gabian diñozu? Egunez gitxi ikusten da bertan lañuaz, ta gabez gitxijago.

—Ezer ikusiko ezpa-dot be, zerozer entzungo dot.

—¿Ezer entzun? An gustija dago ixilik.

—¿Biala gabian be?

—Bai, ba, beti lez.

Au entzunda, agureak, neu begiz jo ta esan eustan:

—Zuzen zagoz: biala gaba ezta ixaten bestiak lakua, oraingo gastiak ziañesten ezpa-dabe be. Ni mutila nintzala, bertan egon nintzan bein gau oretan, eta ikarea saitzen yat ondiaño, entzun nebana gomutetan dodanetan.

—¿Zer, ba? ¿Zorgiñik ete dago Aztobizkañ-atxetan, ala?—iribañez esan eban ilobeak.

—Eztago zorgiñik, ez akelaferik. Baña tontoñ atan entzuten da 15'kañen egunian ilen gudakearen (batalaren) zaratea.

Agurearen itzak (berbiak) poztu ninduben. Eurek iragañten eusten ondiño bixi-zala mendi ta aflu aretan Irati baso andi itxaltsuban Oñeaga'ko baseññaf agura bati entzun neutson aselia (leyendia). Bai, ondiño bixi-zan geure baseññafen artian ilen gudakearen aselia (ilen batalaren leyendia), asele ikaragañija. Asele ori zala-ta, antxe nenguan, nire begi ta belaññjakaz berau egiztuteko.



Bijaramonian, Oñeaga'ko jaupaltxaun (kolegiata) ospetsuban jaupea (mezia) entzunda gero, asi nintzan, agura biderakusliak lagunduta, lañoz estaldutako Aztobizkañ tontoñera igoten.

Bidia latza zan, ziñez, añiz betia. Añi-artetik ira oñlegijak (berdiak), ezel bijuñak eta gorostijak agiri ziran. Baña lañua uñatuta, an goi-goyan agiri ziran aitz urdiñak ikusijaz, bijotz-ikarea sañtu yatan.

Eta geu igon eta igon, gelditu-barik, aitz eta zañ-zañez jausñako edo ekatxak eratsñako zugatz-enboñ-artetik. Batzutan nañezka, bestetzutan jauzka (sal-

toka), an genbiltzan lafi ta arnasa-oska, eskuban makil sendua geukala.

Geruago ta zugatz eta sastraka gitxijago.

Bat-batez, lañuak geugana etofi ta inguratu ginduzan. Lafi ikusi geban buruba.

Iluntzija zan.

Aztobizkar tontof gorengora eldu giñian. Gerotxubago ilundu zan: gabak zapi baltzaz estaldu eban Euzko-erija.

Nire janzki bustijak iragañi eusten odei-artian gengoza. Eta auxe igarita, otz-dardarea saftu yatan barura.

Mantiaz gorputza estaldu ta toki arek ondo ezautzen euzan agura biderakusliari elduta, berakin niñoyan astirotxu, ozta-ozta. Ibili ta ibili, aitz-arteko zulo andi baten saftu giñan.



Luzaro egon gintzazan ixil-ixilik. An etzan ezer entzuten: dana zan ixil utza.

Bat-batez ta urundik ba'letozan lez, entzun geuzan erloyu edo gabeukatz batek jo euzan amabi dandadeak: gabeukatz ori zan an bian, aru sakonian antzin-antziñetik eguan txadonekua (elexakua).

Gabeukatzaren azkenengo otsaz batez, astiro ta leun igon zan aru-barutik ots ikaragañija. Ots au

geruago ta andijagotu zan. Esan eikian beragaz batuten zirala beste abots samin-mingotxak.

Gero entzun geban udagoyeneko axiak ofbela batera ta bestera erabildiaz egiñen daun zarata txikija, baña pago ta areitz tantayai adafak moztuten yakezarian ixaten dan kafaska-otsa be.

Axia geruago ta indartsubago. Oru itxela egiñaz ta araneke baztef batetik bestera juanda gero, mendijetako arubetan sartu zan. Toki gustijetan kalte ixugarifik egin ebazan, atxak mendifik bera eratsijaz, zugatz-adafak ausijaz...

Geruago argi bat agiri zan, argi itxala, ta onen osteko durunba ikaragarifik igifu ebazan mendijak... Zarata onen ostez beste ots andijak urten ziran of-emen, eta eurok ziran gudari edo soldau askoren oin-otsak lakuak eta abesti edo kanta pozkofak egiñen ebezan abotsak... Gero, ixila, ta bañiro guda edo gefa-santsuak, zaunka ta zaunka egozan txakufen abotsak (bozak), didaf-oyubak, ifintzi zolijak... Baña gusti au baño zolijago entzuten zan, argi ta garatz, euzkotafen guda-santso ikaragarija...

Gero... izkilubak (armak) jaso ta alkañen aufka bufuka gogoña, aitz eta afijak mendifik bera, didaf zolijak, oyu mintsubak, efbestetañen elez (berbaz) esandako añen eta birauak... Onen ostian, garaitz-santsuak, alayubak, euzkeraz egiñak...

Triskantza goñijon entzun geban Rotlan'en turutuba, sorosi (laguntza)-eske. Gudari eñbestetañ ospe-tsu onek bixitza galdu eban bertan, euzkotañak erailda.

Bañero ixila, ixilune luzia, ta gero beko aranetik igon zan amaika euzkotañek egindaño iñintzija, iñintz zoli-zolija, aranik-aran, mendirik-mendi ta añurik-añu zabaldu zan iñintzija... Garaitz-iñintzija zan, aña-tza zapaldu ta biñindu ebenaren iragañija.



Amatu zan gustija.

Lufian ilda lotu ziranen ganera mendi-tontoñetik jatsi zan lañua, zapi zurijaz euren gorpúbak estalduteko.



Soñkaldian dizdizka asi ziran eguzki-izpijak. Euren argijaz lañua uñatu ta mendi-aranak agiri yatazan. Aitz-añtetik uñten ziran, egazka, Aunamendi'ko aña-nuak.

Aztobizkañ ta Ibañeta mendijak zuri-urdindañ margua (koloria) añtu eben. Eta bertako ixila ausi eben Oñeaga'ko lekaretxeko jualiak (monasterijoko kanpayak), goxeko *Angelus* joten.

Dana itxařtu zan. Basuan entzuten ziran txorijen txirulijak, ardiyen txiliñak eta artzañen abestijak.

Dana zan bakia, dana zan poza orain amabi eungi (siglo) buřuka ixugařija ixan zan tokijan bertan. (1)

(1) *Oreaga* (erderaz *Roncesvalles*) dago Nabařa'ko aran eder baten. Ipař-aldeetik, Ibañeta bizkařa. Ibañeta'tik bera, Laburdi'raño duan bidia. Eta eskuma-aldeetik, Aztobizkař mendija, mendi jagija ta entzutetsuba.

Mendi ořetatik igaro edo pasau zan VIII eungijan (sigluan) Carlo Magno eretxon pantzetař gudari ospetsuba, España'n arazuak atonduteko. Baña Nabařa-ziař igaroteko ezeutsen nabařtařai axu edo baimenik eskařu, ta ořez ganera, bere arazuak atonduta, atzera egin-ebanian, Iruña'ko guda-jauregijak suziřu ta birinđu euzan.

Au zala-ta, nabařtařak asařatu ta Aztobizkař mendijan geřtau ziran Carlo Magno'ren gudarozte edo ekertzito ugaritsubari gogoř jařkiteko.

Geřtau ta egin.

Buřuka itxala eginđa gero, nabařtařok lotu ziran garaitsu. Mendi-bizkařak eta arana odolez gořitu ziran. Bertan auřkiřu edo topau eben erijotza Carlo Magno'ren miľa ta miľa pantzetařek.

Gudaka edo buřuka onetan nabařtař gustijak gudaldu eben alkařekin, aberi baten semiak lez.

Orain, baña, nabařtař zindo ořen ondorengiak bananduta dagoz, batzuk pantzetař ta bestiak españařtat daukela euren buruba...

(*Euzkeraltzaliaren uara.*)

Atzeko gabian nire irudimenaz ikusi nebanaren ostez, bakia ta zorijona etofi yatazan. Egun atan, Ofeaga'ko gudakearen urteufena betetan zan egunan bertan, Doibatz edo Elexa gure Amak ospatuten eban Ama Neskutza donokira jasotzia, ta Ofeaga'n dagon bere Irudijaren aurian auzpeztuten ziran Aunamendi'ko (Pirineo'ko) alde bijetako nabañtañak, euzko-odol berbera daukelarik, Aztobizkañ, Ibañeta ta Andresaro'n alkañekin ta anayak letxe aberijaren aldez gudaldu (geña-egin) ebenak.







# MARTIN ABADIAREN TXAKURAK

---

Añasate (Mondragon)'tik Santa Agueda'raño duan bide-eskumaldian, emengo zoro-etxe ta Garagaítza basefi-ondo-onduan, dago Udala mendija, mendi jagi-jagija.

Onen tontoña goi-goi dago, ija Anboto'rena baxen goi, ta eurok ikusten ei-dabez lenen-lenen euzko-itxaseítzetara uferatzen diran itxas-gixonak.

Udala-beko ta érdiko aldiak zugatz eta sastrakaz beterik dagoz: tontoña, bañiz, soil-soil. Bere aitz urdiñak safi egon oi-dira lañoz estalduta.

Mendi onen onduan dago Udala basefija, basefi txiki-txikija. Bertako etxiak gastañadi, untz eta auntz -óri-artian dagoz, eurok emoten dausiezala gerizpia, usain gozua ta alaya.

Etxe onetan pozik eta zoruntsu bixi dira, beti lanian eta bakař-bakařik diñarduben baseřitařak.

Udala'k eztauko entzute andirik edestijan (istorijan), baña bai-dauko nik edestuko dautzubedan asele edo leyendia, bertako agura-atsuak edestuten dabenez.

Ona:

XVII eungijan (sigluan) Leniz'ko jaupalburu edo artziprestia zan Martin eretxon abadia. Jaupari au gixon zintzua zan, baña zaletasun bixija, bixi-bixija eukan exerako (kazarako).

Zaletasun au, berez, ezta txafa, batez-be jauparija edo eleiz-gixona eztanarentzako, baña geure jaupalburubak ezaban pentzetan besterik eizaz ibiltia baño. Eta saři-askotan aitzu-erazoten eutsozan zalekerijok abade-biařkunak.

Egiz esan lei Martin jauparija ija zoratuten zala eřbi, epeř, txakuř ta ostantzekuetzaz oldozketan (pentsetan) asten zanetan.

Ořafiño, baña, bein baño geyagotan gomutetan eban bide txafetik joyala, ori etzala berari egokijona. Eta olakuetan, gogua ilunduten yakon, itun (triste) lotuten zan eta erabagi sendua ařtzen eban zalekeri ori beragandik alde-eragiteko, andik auřera jaupari-biařkunai baño beste gauzeai jaramonik ez egiteko.

Buru-auste onetan eguala, negar ta negar egin eta eleiz-liburubak irakurten asten zan gogoz ta sutu. Gogoratuten eban Augustin deunak (santubak) zalakeri oren atxin (kontra) esan ebana, baina exaz (kazaz) ibildeko Gotzale-batza (Concilio) batzuk eleiz-gixonai ezari dautsien eragotzija. Gusti ori gogoratuten eban geure abadiak, eta berau gogoratuta, eiz-zalerija kenduteko erabagi sendua artu. ¡Baña alpefik!

Egun batzuk juanda, lengo bidera, lengo arira jo. ¡Eta geruago sutsubago!

Artega, urduri, txadonan (elexan) edo etxeko baztefan sartu ta goguari utz-utz yatozkozan gauzeak irakurten ebazan. Baña ezin.

Begi ta idazti (liburu)-bitartian ageitzen yako...n bera exaz ibilitako baso ta aranak; irudimenaz ikusten ebazan piloka ta egazka, epefak, usuak eta olagoak, eta ariñeketan erbijak, basauntzak eta basufiak, atzetik zaunka ta zaunka bere txakufak joyazala.

Olakorik jazoten yakonian—eta auxe sari jazoten yakon—eleiz-idaztijak artu ta asafez botetan euzan lufera. Gero, etxe-baztefetik urten, sutonduan jafi ta bazkari edo aparija zelan geftetan eutsoen begiratuten lotuten zan. Baña gogua argitu-biarian, geyago ilunduteko, beragana elduten ziran bere

txakufak, txakuf edefak eta exerako lagun zinduak.

Olantxe bixi ixan zan luzaro Martin jauparija: urduri ta artega, zer egin ezekijala: bere bialai bakafik aditu ala eiz-zalekerijari gogofago oratu.

Udabafiko goiz edef batian, eguzkijak argija ta poza emoten euzala, Martin abadiak jagi ta gelako leyuak zabaldu euzan. Leyuak zabaldua, ikusi ebazan begi-aufian eukazan mendijak... eta beste-barik, eskopetia ta txakufak aitu ta baso-ziaf jua zan, arin eta pozik.

Ordutik aufera, goiz ta afatsalde, beti egua exan, bere bialkunai jaramonik egin-barik. Eta geruago, txafago.

Efiko atsuak *mor-mor* asi ziran. Aizkidiak agiraka egiten eutsoen. Baña alpefik.

Bein Udala basefira jua zan jaupa edo mezia esateko. Mezia esaten eguala, entzun eban txadon (eleiz)-ondoko basuan egozan bere txakufen zaunka-otsa. Orixe entzunda, amatu euzan otoyak (orazi-nuak), meza-liburuba itxi ta adi-adi lotu zan.

Laste afertu yakon bertako aizkide bat, eleiz-atetik esaten eutsola:

— «Zu, Martin, txakufok efbi andi bat jaso ta bere atzetik duaz ariñeketan.»

Leniz'ko jaupalburu edo arziprestiak, au entzunda,

mezia amañu - barik itxi, ganian eukazan janzkijak erantzi, eskopetia arñu ta basora urñen zan tximista baxen arin, txakuñen bidiari jañai.

Meza-entzuliak ikaratatu gerata ziran, bañā abadiaren atzetik juañ be.

Bañā belu.

Arezkero, jauparija bai-eguañ Udala-tontofā es-talduten ebañ lañō-arñian, eta bakafik entzuten ziran, urñun-urñun, txakuñen zaunkak.

Gau atañ ekaitz gogofā ixañ zan. Bañā abadia ageñtu ez.

Urduri egozañ eñikuak.

Bijaramoniañ baseññaf batzuk urñen zirañ men-  
dira, bañā ezebeñ ezer idoro edo topau.

Ez Lañño'n, ez Begoñā'n, ez Añasate'n, ez Leniz-  
-arañañ etzañ agiri ixañ eiztari (kazadore) gaxua.  
ñltxuraz, Maññ abadia betiko ayañatu zañ!

¿Zer jazo yañon?

Ezebañ iñok jañin.

Bañā eguañ juañ, eguañ etofñ, Udala mendiko artzañ eta baseññafak entzuañ ei-ebezañ gabez ta beñ bañō sañijago Maññ abadiaren txakuñen zaunkak, bañā areñ abotsa (boza) be.

Au entzuten zañ biñarñian, axe gogofā ebiñan, eta bere bultz-iññafaz zugatz-adañak maññtuten zirañ.

Orixe zañ Maññ abadiaren gogua, batetik bestera,

atsedenik (deskantsurik) ar̄tu - бага, ibil̄deko Jaun-goikua'k zigoŕtau ebana.

Aŕezkero, olantxe dabil. Eta olantxe ibil̄iko da Udala atxetatik Garagaŕtza baseŕiraño ta Aloña-ton-toŕetatik Aramayona'raño Jaun-goikua'k abade gauagaz er̄ukitu-ar̄te.

Auxe da Udala-aselia (leyendia).

Bere mamiña ar̄tu ta goguan iratzi, euzkeldunak; eta kozkola luŕera bota.



---

UARA.—Asele au Euzkadi'ko beste toki batzutan entzuten ei-da, gitxi gora-bera Udala'n lez. Europa'ko er̄ijetan be bai -dago onen antzeko aselia.



## ARALAR

---

Askitz (tradiziño) au ezagun-ezaguna da Nabaía'n eta Euzkadi'ko toki askotan be.

Orafiño, baña, zeuk eztakixulakuan, emen edes-tuko (kontauko) dautzugu.

Aditu, ba, euzkelduna.



viii eungijan (sigluan) Goñi'taí Todosi, Nabaía'ko gixon ospetsuba, *Erotabide'tik Goñi* araneko bere etxera joyala, gixon bat ageítu yakon bidian, lekauti edo ermitañoaz jantzita.

Berau ikusita, gelditu zan Todosi, baña ikaratu be, berari gauza andirik esateko eukala adirazo eutsc-nian.

Gixon onen itxurea on-ona, apal-apala zan-eta, Todosi geftau zan adi-adi entzuteko.

Lekautijak esan eutson emaztiak atzipetu edo engañau egiñen eutsala, bera ataz (kanpuan) ibilten zanian beste gixon bat ezkon-oian sartubaz.

Gusti au berba leunaz esan eutson, apal-apalik, Todosi'ren entzute onak ardua andija emongoba'leutson lez.

¿Nor zan lekauti a?

Iñok eztaki ziuñ, baña zana zala, zirija ondo sartu eutsan nabafta zintzuari.

Todosi'k ziñetsi eban lekautijak esan eutsona. Emaztiaren ekandun edo birtutiai baño jaramon geyago egin eutson gixon madarikatubari.

Todosi'k uste ixan eban lekautijak ezin ebala guzúrik esan, eta, jakiña, ziñetsi eutsan.

Geruago, emaztiaren zindotasuna ta ekandunak (birtutiak) gogoratuta, ezetz eta ezetz esaten eutsan burubari. Au zala-ta, buñuka gogofa erabilan bere bañuban.

Baña ibili ta ibili, ziuñtzat artu eban lekautijaren esana. Eta arézkero, artega ta urduri, asafe bixiz, aspeñkunde (bengantza)-ustia iratzi zan bere goguan.



Gaba zan.

Beronen ilunaz inguratuta, etxian sartu zan Todosi, arnasa-oska ta begijetatik txinpartak botaten euzala.

Ilnok ikusi ezaban.

Etxe-baŕu eguala, bere gelako atian lotu zan geldi-geldi, belaŕija adi-adi eukala.

Dana ixil-ixilik...

Ixilik, ez. Zeozer entzuten zan...

¿Zer-ete?

Gela-baŕutik etoŕan arnasa-otsa, biaŕba emazte-dongiaren eta Todosi'ren lekuban eguan gixonaren arnasarena...

Nabaŕtaŕ zintzua, ikaraz ta amuŕuz, ixil-ixilik, gela-baŕura sartu zan.

Ilun-ilun eguan.

Uŕferatu zan ezkon-oera; eskuba luzatuta, ikutu eban eta... ¡bai! bat baño geyago egozan bertan! ¡Eta gixon-emakumiak ziran bijak!

Ixerdi otza bekokira urteten yakola, amuŕu-dar-daraz, ezaban Todosi'k ezer oldoztu (pentsau), bere ixen zindua, bere entzute ona lotuten ebenak erail (il) baño.

Oldoztu ta egin. Geritik dingilizka eukan ezpatea, ezpata zoŕotza artu ta oian egozan bijai samatik sartu eutsen...

Bat-baten oia odolez goñitu ta bertokuak ilda lotu ziran.



Orixe eginda, ixil-ixilik, sañtutian letxe, etxetik urten zan.

Todosi 'k, bere zorigatxaren gomutea burutik atzinduteko (kenduteko), uñunera, eñbestera igesteko asmua eban. Eta asi zan bide-egiten, etxe madarikatutik alde-egiten...

Baña eleiz-ondotik igaroten zala, bertatik etoñan emaztia, bere emazte berbera aurkiñu (topau) eban bat-baten.

Esan-biañik eztago Todosi gustiz ikaratu zala ta ezekijala begi-zoli ala ametsetan eguan. Ilda lez etxian itxi ebana antxe eguan, bere begi-auré-aurian.

Ikusten ebana ziñetsi-eziñik, Todosi 'k itandu eutson emaztiari nundik etoñan, zetan ebiñan eta nor-tzuk ziran euron ezkon-oian etzunda egozanak.

Emaztiak erantzun eutson, berak, Todosi 'k etxetik alde-eginda lasterñtxe beronen gurasuai dei-egin eutsela etxera etoñteko, ta egun atan, aparija añtuta berialaxe, ezkon-oian etzun zirala, obeto atsedendu edo deskantzetako.

Beraz, Todosi ataz (kanpuan) ebiñan añtian, bere

gurasuak erabilen ezkon - oia, aren emaztiaren aginduz.

Todosi'ren atsebagia samin-samiña ixan zan, bere gurasuak il euzala igarita. Ordurarteko asafe-amufubak juañ yakozan, eta, bañiz, ituna (tristezia) ta nega etofi.

¡Arek ziran nega-malkuak! ¡Arek zotin-intzirijak!



¡Mañe-mañerik eukazan gurasuak bere ezpateaz erail!

Todosi garbatu zan bijotz-bijotzez. Eta damutu-damuturik, Iruña'ko Gotzale edo Obispuagana juañ zan, azkets (parkaziño)-eske.

Gotzaliak, arazo aztuna zalako-edo, Doipurubagana (Aña Santubagana) juateko esan eutson. Eta Todosi Roma'ra juañ zan.

Doipuru-añian auzpeztuta, gusti-gustija edestu ta oben-nea (penitentzia) eskatu eutson.

vii Jon'ak ezeutson eskañ au ukatu. Mañero añtu ta adituta, obena (pekatuba) kiñatuteko auxe agindu eutson: buñdiñezko estuntza edo kate gogofa geñtik dingilizka ezafi ta baso-mendi-ziañ, uririk ikusi-bage, ibildeko, estuntzea, berez, ausi-arte. Estuntzea berez apuñtutiak adirazoko eban Jaun-goikua'k obena azkesten (pekatuba parkatzen) eutsola.

Todosi'k gogo-gogoz aitu eban Doipurubaren oben-nekia. Eta berau ainbat ariñen betetan asteko, Nabafa'ra bigutu zan.



Todosi'k bizkera (biximodu) itxal ikaragañija eukan basuan.

Añi-zulo andi baten sartuta, ija biloxik, bedafak bakafik jaten euzan.

Berau ikusita, edonok esango eban mirariz bixi zala.

Neguban edura ta ixotza ixaten ziran ugari mendi atan. Baña Todosi'k ezaban surik egiten gorputza berotzeko.

Zulo atan etziran ixaten gosia ta otza baño.

Eta antxe bixi zan gure nabañtaña, bere burubar-ekin bakaf-bakafik, gorputza estalduteko janzki ufatu-ufatuba ta etzuteko ari gogofak baño ezeukazala.

Todosi'ren itxurea txaf-txafa zan. Len ixandako gixon edef sendua, argal eta zurbil eguan: azuf-naubak bakafik eukazan gixaxuak.

Olantxe bixi ixan zan urte batzutan: geñijan estuntza gogofa eukala, baso-ziaf ibilten zan, ez iñoren ez ezeren bafirik-bage.

Bein *Goñi* araneko aitz-añtian ebiñala, jausi yakon estuntza-estun bat.

Jazokun onen gomutakitzat gurutz bat ezañi eban leku atan. Emetik *Arala'* mendira juan zan.



Arala' mendiko egoi-aldian, *Andia* mendaitz-añ-ian, gauñ Deun-Mikel'en txadon miraritsuba dagon tokijan bertan, orduban lekaro (basamortu) andija eguan, eta aitz eta añiz betetako zulo sakona. Zulo onetan pizti iguingañiak bixi ziran, irantsuge (dragoi) ixugañija buru ebela.

Artzañak eta ikazkiñak bertatik alde-egiten eben bilduñez.

Todosi, baña, berton sañtu zan, oben-nekiari (penitentsijari) ekiten jañafuteko.

Mendi-tontoñ aretatik otoi bero-sutsubak zuzentzen eutsozan Jaun-goikua'ri.

Bein, onetan eguala, zulo-aitz-añtetik urtetan ziran oñu itxelak, ikaragañiak, entzun euzan, eta onen ostez irantsuge andija, begijetatik argi-izpijak botetan eta abua zabal-zabalik, Todosi irunsteke itxuraz, ikusi eban.

Nabañtañ gaxua ikaratu zan. Gomutau eban nekia (penitentsija) bete-barik eukala ondiño, ta bere gogua galtzori (añisku) oñetan ikusiña, Jaun-goikua'gana

begijak jaso, aldian eroyan zurezko gurutza laztandu ta Deun-Mikel Gongotzonari (San Migel Goi-aingerubari) aŕen-egin eutson irantsuge (dragoi) ixugaŕija zapalduteko...

Eta olantxe jazo zan.

Argi dizdiratsu ta odei zuriz inguratuta, Todosi'ri agiri yakon Deun-Mikel Gongotzona, ta lasteŕ-bai-lasteŕ irantsugia ayenatu zan.

Luzaro egon zan Todosi eskaŕ-otoyak (oraziñuak) egiten, gurutza laztanduten eta zer jazoten yakon ezekijala.

Nabaŕtaŕ zintzuaren gogua eztitsu ta pozaŕen eguan: luŕian auzpeztuta, zerura begira, otoi ta otoi-ka iñarduban.

Gogua baretu yakonian, jagi zan. Eta jagita berialaxe, luŕera jausi zan estuntzea, mirariz ausita.

¡Todosi'ren poz-alayak! ¡Estuntzea ausita, amaŕuta eukan neke-aldija! Estuntzea ausita, azkatuta eguan Todosi'ren gogua!

Au jazo ei-zan 714'gaŕenian, I Kostantin Doipuruba (Aŕa Santuba) zala, ta Todosi-gurasuen erijotzaren saspigaŕen urtian.

Aldi onetan, gitxi gora-bera, soŕtu zan Nabaŕa-bakala (eŕegetza), Abarŕtzutza ta Amezkoeta'ko jauna lenengo bakalduna (eŕegia) ixan zala.



Goñi'taf Todosi etxera biguñtu zan. Eta biguñtuta lastef, Aralaf'ko jazokunaren izpafa of-emen zabaldu eban.

Bafi onegaz getu zan nabañtaren bijotzetan Mikel Deunaganako mañasuna, ta begi gustijak zuzentzen ziran Aralaf mendira.

Todosi'k asmau eban basatxono edo ermita bat bertan iragiñia, jazokun zorijontsu aren gomutakitzat.

Otu ta egin.

Basatxonua iragi eban, bere bañuban eukala iran-tsugia eguan zuloko atxa.

Txadon au etzan andija, baña bai sendua.

Egoi-aldeko atian eskegi eban berak saspi urtetan geritik eruan eban estuntzea.

Estuntza onen azta edo pixua da amazoñtzi libra, ta ondiño dago txadonan bertan.

Deun-Mikel'en opaz egindaño basatxonuau Iruña'ko Gotzaliari emon eutsan Todosi'k.

Geruago etxe bat iragi eban basatxono-onduan, eta bertara juan zan nabañtaf ospetsuba bere emazte zinduaz bixi-ixaten.



Urterik asko igarota, txadon bafi ta andijagua egin eben nabañtafak Aralaf mendijan Deun-Mikel

Gongotzonaren opaz. Baña ez uste gero Todosi'k egindako basatxonua iratsi ebenik. Ez. Basatxono au bertan dago, txadon bafi andi-bafuban. Onen onduan dago ostatuba, ostatu edef galanta.



Anei (mila) urte ta geyago igazi dira.

Eta geruago, Mikel Deunaganako eraskun edo deboziño geyago dago Nabaña'n eta Euzkadi osuan.

Eufez erduten dira bertora euzkotafak.

Aralaf mendira zuzentzen dira nabaftafen eta enparau euzkotafen begi - bijotzak. Eta Gongotzonak (Goi-aingerubak) mendi-tontof atatik argiztuten dauz euzkotaf zindo onen goguak...






# BIĪABIDIA

---

<i>Uarak</i> . . . . .	2
<i>Erotazuri'ko uretxindora</i> . . . . .	3
<i>Ilen gudakea</i> . . . . .	7
<i>Martin Abadiaren Txakurak</i> . . . . .	15
<i>Aralař</i> . . . . .	21







ATV  
215